

txintxarri



Dantza, hizkuntza unibertsala

Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatu dute hainbat dantza taldek herriko kaleetan eta Okendon / 4

TXINTXARRI

Lasarte-Oriak, klika

21. Korrikak igaro zen herritik. Apirilaren 12ko ekintzen irudiekin osatutako galeria ikusgai / 6-9

Lasarte-Orian ere PSE-EE garaile izan da, 3.215 boza, Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan / 2

500 txirrindulari baino gehiago izan dira BMW Lurauto BTT Lasarte-Oria probako irteeran / 10

URTINEA 

Urdaiaga auzoa, 11 · USURBIL
943 917 562

LORADENDA · EZKONTZA ETA EKITALDIAK · DEKORAZIOA




Haurreskolak

LASARTE-ORIAKO
ANDREJOAKINA HAURRESKOLA

Izena emateko epea:
Maiatzaren 2tik 10era

2018 eta 2019an
jaiotako haurrak

Kalbario bidea, 2
Tel: 943 36 72 38
andrejoakina.lasarte-oria@haurreskolak.eus



www.haurreskolak.eus

Euskadi, auzalana
EUSKOJAURRIARITZA GOBIERNO VASCO

Zuk jolasa ikusten duzu.
Guk bere garapenean ere laguntzen dugu.

Parte hartzea nabarmen hazi da hauteskundeetan

Pasa den asteburuan egindako Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetan zazpi puntu hazi da boza ematera joan diren lasarteoriatarren kopurua. PSE-EE izan da alderdi bozkatuena, Podemos buru duen koalizioaren aurretik

Txintxarri

Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetan emaitzek ezusteko gutxi utzi dituzte herrian. PSE-EE izan da boza gehien jaso dituen alderdia, 3.215 botorekin, 2.048 lortu dituen Podemos, IU, Equo Berdeak alderdien koalizioaren aurretik. 2016an lortutako postuak trukatu dituzte; alderdi moreak galdutako boza ia adina irabazi dituzte sozialistek. Orduan, Elkarrekin Podemosek 2.822 jaso zituen, eta 2.493 sozialistek. Emaitzak hobetu dituzte ere EAJk, 1.971 (1.233, 2016an), EH Bilduk, 1.697 (1.378) eta Ciudadanosek, 462 (407). PPK, berriz, behera egin du, 1.065etik 654ra, eta VOX ultraeskuindarrak, 213 boza lortu ditu.

Emaitzak gorabehera, aipagarria da hauteskundeetako parte hartze maila. Duela hiru urteko datuarekin alderatuta, nabarmen hazi da. Lasarte-Oria ia zazpi puntu. Barne Ministerioak emandako datuen arabera, bozetan parte hartzera deituta zeuden 14.429 pertsonen hiru laurdenek eman zuten boza; hau da, %74,24ak. 2016an, %68,27 izan zen. Ohi bezala, goizeko bederatzieta ireki zizuten hauteskunde mahaiak, eta eguerdi partean izan zen mugimendu



Herritar askok parte hartu zuen igandeko hauteskundeetan. TXINTXARRI

gehien; barrutiren batean dezenteko ilarak sortu ziren.

Gipuzkoan ere ikaragarri igo da parte-hartzea: hamar puntu baino zertxobait gehiago. Herritarren %73,85 joan ziren hautetsontzietara; 2016an %63,28koa izan zen kopurua.

Mahain osaketa zozkatu dute

Diputatuak eta senatariak aukeratu, datozen hauteskundeetara begira daude jada udal ordezkariak. Maiatzaren 26an boza ematera deituta daude

lasarteoriatarrek, hain zuzen ere, alkate eta zinegotziak aukeratzeko; Batzar Nagusietako eta Europako Parlamentuko ordezkariekin batera. Prozesuaren lehen urratsetako bat hautets mahaiak eratzeko zozketa da. Astelehen eguerdian egin zuten, baina Norberaren Datuen Babeserako Legeak hala behartuta, ezin dute zerrenda publiko egin. Beraz, zeregin hori egokitu zaien herritarrek egunotan izango dute horren berri, jakinarazpen ofizial baten bidez.



TXINTXARRI

Podemosek lokala inauguratu du

Udal hauteskundeetara begira lokala inauguratu du Podemos alderdiak. Blas de Lezo kalean dago; alderdiaren inguruan azalpenak eska ditzateke herritarrek. ADLOP Ahal Du Lasarte-Oria Puede markarekin aurkeztu zen udal hauteskundeetara orain lau urte. David Ares izango da zerrendaburua; egun zinegotzia da. Zerrenda osoa datozen egunetan aurkeztuko dute.



TXINTXARRI

Kirol azpiegituren hobekuntzak

Udal kirol azpiegiturretan hobekuntzak gauzatzeko, 19.697 euroko inbertsioa egin du udalak. Maialen Chourraut kiroldegian squasheko kantxaren horma, sabai eta zorua hobetuko dute; Loidibarren frontoian tratamendu antilabaingarria jarriko dute zoruan. Zabaletakoan, berriz, eskuineko frontisean sarea, toldotarako panela, armairu bat eta markagailua instalatuko dituzte.

UDAKO TXOKO ETA UDALEKUETARAKO BEGIRALE LAN-POLTSA

18 urte baino gehiago badituzu eta udaran begirale izan nahi baduzu, bidali edo ekarri zure curriculum eta eskaera-orria beteta Ttakunera **maiatzaren 10a** baino lehen.

*bulegoan eskuragarri, www.txintxarri.eus webgunean edo <https://labur.eus/begirale2019>

Betebeharrak:

- Begurale titulua
- EGA edo baliokidea den agiria
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalik ez duela egiaztatzen duen ziurtagiria.



@TtakunKE



asia@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943 37 14 48




MAiTE

ESTETIKA ARETOA

oparitu kapritxo bat amatxori!

Amaren egunerako zatoz Maite estetika aretoa: opari txartela prestatuko dizugu aukeratzen duzun zerbitzuarekin.

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45





EH Bilduko zerrendakideen argazkia, Tximistarreta parkean. TXINTXARRI

Iragana aldarrikatu, etorkizuna irudikatzeko

Pablo Barrio EH Bilduko zinegotziak liburuxka bat aurkeztu du, azken zortzi urteetan egindako lana erreparatzeko. Udal bozetara aurkeztuko den talde berriarentzat erreferentzia izango da: "Gure lana gidatzeko iparrorratza da", esan du Jon Martinek

Adrian Garcia

Lasarte-Oriako EH Bilduko talde osoa elkartu da Tximistarreta parkean. Aurreko ekitaldi batean irudikatu zuten testigu aldaketa, zortzi urteren ondoren, talde berri batek hartuko baitu alderdiaren gidaritzaren herria. Orain, azken bi legealdietan egindako lanari erreparatu diote, baina hurrengo udal hauteskundeetan jarrita burua. Ez da kasualitatea Sasoeta auzoko parkea aukeratu izana; arratsalde eguzkitsu batean Buruntzaldera bista paregabea izateaz gainera, EH Bilduren alkatetzan diseinatu eta egin baitzuten parkea.

Pablo Barrio bozeramaileak liburuxka bat aurkeztu du; horretan zerrendatu dituzte azken zortzi urteetan aurrera emandako ekimen nagusiak. Bai gobernuan zeudenekoak, baita oposizio aldikoak ere. "Herri proiektu oso batez mintzo dira lerro horiek, jarduteko modu jakin batez, estilo batez,

konpromiso batez", azaldu du Barriok.

Urte horietan egindako lanaren adibide batzuk aipatu ditu zinegotziak: "Gobernatzeko moduak aldatu ditugu". Izan ere, alkate ohiak azaldu du EH Bilduk politikarien soldatak jaitsi zituela, konfiantzazko karguak gutxiengora eraman eta udalbatzarrak arratsaldeetan jarri, herritarrei sarbidea errazteko, besteak beste. "Alkatearentzat izan behar zuen 60 metro koadroko espazioa herritarrentzako areto polibalentea bihurtu dugu [Mercero aretoa]".

Gobernu lana

Beste hainbat gai ere aipatu ditu Barriok. Hirigintza, parte hartzea, sozio-ekonomia, Gizarte Zerbitzuak, genero berdintasuna, jatorri aniztasuna, bizikidetzak, gazteak...

Liburuxka eskuragarri jarri dute sare sozialetan, eta paperean baten batek nahi izanez gero

Okendo plazako bulegoan lor dezake.

Oposizio lana

Bestalde, azken lau urteetan PSE-EEren udal gobernuari eginiko kontrola goraiatu du Barriok. "Proposamen eraikitzaileak bideratu ditugu; plenoak babestu ditu, PSE-EEren aurkako botoekin". Horien artean ondokoak nabarmendu ditu: gizarte zerbitzuetako errefortzu neurriak, etxez-etxe zerbitzua hobetzea eta aparkalekuen arazoa konpontzea.

Iraganari erreparoa eman ostean, aurrera begira ere jarri da EH Bildu. Jon Martin alkategaiak eta Estitxu Garmendia laugarren zerrendakideak hitza hartu dute programaren zertzelada batzuk emateko: "Lasarte-Oria herri bizia ureztatzen jarraituko dugu. Azken urteetan egindako guztia izango dugu lana gidatzeko iparrorratz".



GORKA ALVAREZ

Inurritegian

Intsektuen mundu interesgarriak asko irakasten digu gizakioi. Xomorro asko sozietate edota kolonietan bizi dira. Badituzte hauek amankomunean ezaugarri nahikoa errepikakorrak izaten direnak. Badaude soinu desberdinak erabiltzen dituztenak ere, baina beti bikotekidea erakarri, janaria gerturatu edota aurkaria aldentzeko erabiltzen dituzte, hau da, ekintza praktiko eta eraginkorrak bezala.

Boz orokorrak igaro berri dira Estatuan. Gure herrialdean ere, bozka aukera izan dugu. Kanpaina mota desberdinak ikusi ditugu konbentzitzeko. Batzuek soinu dezente atera dute, beste batzuek ohikoa duten jarrera oldarkorrekarekin egin dute kanpaina. Gehienek soinu dezibelioak jaitea erabaki dute. Zaila da espainiar boz orokorretarako bozka eskatzea.

Komunitate desberdin horietan hiru azpimarratuko nituzke. Kilkerrak, erleak eta inurriak. Kilkerrak soinu ederra egiten dute normalean. Euren proposamenek belarriak goxatzen dizkigute nahiz eta errealitatea beste bat izan askotan. Bestetik, erleak ditugu. Komunitate hau ongi antolatuta dago eta oso langile leialak dituzte euren abarasketan lanean. Azkenik, inurriak ditugu. Borrokalaria sutuak. Isilpeko lana gustuko dutenak. Soinujoleetatik urrun, langile eta herri mugimendua ardatz. Belarrira hitz gogorragoak erabiltzen dituzte, baina garbi dute inurritegiak zein motatakoa izan behar duen. Inurritegi sendoak eraiki dira azken bozetan. Erleak abaraskak ederki bete dituzte. Kilkerrantz gaua etorri da, ordea; lau urteko soinu alaiak apaldu dira.

Badatoz udal hauteskundeak. Hauek inurrien ezaugarrien aldekoak dira, ene iritziz. Herri bakoitzaren tipologia oso desberdina izanda ere, inurriek lanean jarraitzen dute, isilik, soinu handirik egin gabe, kolonia zabalduz. Izan ere, erleak neguan euren produkzioa eten egiten dute, kilkerrek egunez euren kantua isiltzen dute, baina inurriek herri herri eta auzoz auzo jarraitzen dute lanean. Udaletako lana, inurriei egokitzen zaiena da. Herrian, herriarentzat egin beharrekoa. Egunerokotasunean, isiltasunean, pauso txiki bakoitzak balio duela sinetsita. Bizi gaitzean bada inurritegian elkarreaginean, elkarbizitzan, komunitatean eta hortik bakarrik lortuko dugu berdin eta desberdinen arteko elkarlan oso bat. Erleak, Kilkerrak eta baita beste hainbatek ere lekua izango duten herri eraikuntza, nazio eraikuntza; gure inurritegia herrietatik eraiki dezagun.

Gure Elkartea

Santueneako Zaharren Egoitza

MAIATZAREN 10EAN 3.URTEMUGA FESTA!

**PINTXO-POTE
berezia!**

19:00etan

**ELEKTROPAPO
zuzenean!**

ZAHARREN EGOITZA

Zatoz eta dastatu!




Santuenea 11 behea (Usurbil) • 686 55 41 45 • [f](#) @GureElkarteaSantuenea



Kukuka eskolako euskal dantza sorkuntzako hainbat gaztetxo, gustura dantzan, Okendo plazan. TXINTXARRI

Maiatzaren Lehena, dantzaren eguna

Langileen Nazioarteko Egunean ospatu du Lasarte-Oriak Dantzaren Nazioarteko Eguna. Erketz EDTk, Semblante Andaluzek, Kukukak eta Plazadantzak parte hartu dute. Herrian zehar desfilaratu dute aurrena, eta emanaldiak eskaini gero, jendez betetako Okendo plazan

Iñigo Gonzalez Sarobe

Maiatzaren Lehena, Langileen Nazioarteko Eguna. Eta baita Dantzaren Nazioarteko Eguna ere, Lasarte-Orian, behintzat. Herriko hainbat kultur eragilek galtzak bete lan egin dute eta ospakizun ederrak prestatu zituzten asteazkenerako. Euren eguna apirilaren 29a da berez, eta, normalean, aurreko asteko larunbatean elkartu ohi dira ospatzeko. Aurten, ordea, Aste Santuko oporraldiekin bat egin du, eta antolatzaileek atzeratzea erabaki dute. Asmatu dute. Lepo zegoen Okendo.

Ospakizunetan parte hartu zuten Kukuka antzerki eta dantza eskolak, Erketz EDTk, Semblante Andaluz elkarteak eta Plazadantza egitasmoko kideek. 11:30ean hasi zen desfilea, baina musika eta dantza lehenagotik egon ziren presente Okendo plazan, talde guztiek eguerdian eskaini zituzten koreografiak entseatu baitzituzten, berotzeko.

Ttiriki Ttarrakako musikariek instrumentuak dantzan jarri eta berehala hasi zen desfilea. Okendo plazatik abiatu ziren; Hipodromo Etorbidea zeharkatu zuten gero, Tajamarreko biribilgunera iritsi eta eskuinera biratzeko; Kale Nagusitik igaro, Arkupe taberna pareko biribilgunean buelta eman, eta Okendorantz berriro. Kukukako irakasle Maider Oizartabalek egitaraua eta parte-hartzaileak aurkeztu zituen.

Motzak eta ikusgarriak

Erketz EDTk ireki zuen emanaldi sorta: agurra, desafioa eta utzidantza eskaini zituen. Motzak izan ziren dantzaldiak, oro har, dinamikoak, eta ikusgarriak.

KARIMA MANSUR KOREOGRAFO EGIPZIARRAK IDATZI DU AURTENGO MANIFESTUA

Euskal Herriko dantza tradizioaletatik, Andaluziako grazia eta koloreetara. Duende eta Gitanillas del Alba taldeetako gaztetxoek gero eta trebeagoak direla erakutsi zuten Okendon. Horiek bukatutakoan, bueltako bidaia: Andaluziatik euskal dantzetara. Sorkuntzara.

Kukuka eskolako hiru taldek zur eta lur utzi zituzten ikusentzuleak, ikasturte honetan landutakoa plazaratzean.

"Hizkuntza unibertsala"

Egun berezi hori ospatzaren aitzakiarekin, urtero-urtero manifestu bat idazten du koreografo batek. Karima Mansur egipziarrak egin du aurtengoa. Kukukako kide Miren Zalduak eta Iñaki Etxegiak irakurri zuten.

Mansourren hitzetan, "guztion hizkuntza unibertsala" da mugimendua. "Beti entzun behar dugu hizkuntza hori, etenik gabe, isiltasunean". Dantzaren balioa ere goraiatu du egipziarrak.



ZARAUZKO HITZA

Lizardi Saria jaso du Garzesek

Xabier Lizardiren jaiotze urteurrenean, astelehenean, jaso zuen Idoia Garzes herritarrek haur eta gazte literaturako Lizardi Saria *Hari single bat* lanarengatik. 1936ko gerraren memoria ardatz duen istorio bat sortu du idazleak; kontaketa elementu fantastikoak errealekin nahasi ditu.

Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasea hasiko dute asteburuan

Asteburu honetan jokatuko dituzte Gipuzkoako Txapelketara sailkatzeko faseko lehen lau bertso saioak. Larunbat eta igandean bina saio izango dira, eta haietan herritarren parte hartzea ez da faltako. Bihar, Idiazabalgo Guraso Elkartearen ariko da Unai Muñoa lasarteoriatarra Imanol Albizu, Txomin Azpiroz, Egoitz Eizagirre, Iker Ormazabal eta Iker Letamendiarekin bertsotan.

Asteasuko saioan, berriz, Maddi Labaka Mayozerk parte hartuko du, baina gai jartzaile lanetan. Igandean Orioko kultur etxean lehiatuko da Andoni Otamendi, Asier Azpiroz, Oier Aizpurua, Urko Egaña, Joseba Andoni Agirre eta Jokin Irastorzarekin batera. Saio guztiak 17:00etan hasiko dira eta txarteltegiak ordubete lehenago zabalduko dituzte. Ane Labaka Mayozerk, Lierni Rekondok eta Zigor Iriondok astebete barru hasiko dute euren parte hartzea fase honetan.



TXINTXARRI

Cano saritu du 111 Akademiak

111 Akademiako kideek Harkaitz Cano herritarren *Fakirren ahotsa* eleberria aukeratu dute iaz argitaratutako liburuen artean. Urtarrila eta apirila bitartean egindako hiru bozketa txandetan parte hartu duten 102 akademia kideen aldetik boza gehien jaso dituen izan da. Azken aukeraketan lehiakide izan du Katixa Agirreren *Ame ez dute* eleberria.

Zerbitzu sozialei buruzko gida osatu du udalak

Mirentxuko oinarrizko zerbitzu sozialean kudeatutako laguntza eta prestazioen berri ematen du liburuxkak. Gaika antolatuta, bakoitzaren onuradun izateko bete beharreko baldintzak azaltzen ditu. Herriko etxe guztietara banatuko dute argitalpena

Txintxarri

Lasarte-Oriako Zerbitzu Sozialen Gida osatu du udalak, herritarrei modu erraz zein argian ezagutarazteko zein laguntza eta prestazio jasotzeko eskubidea duten. Halaber, zerbitzu sozialen inguruko uste okerrak aldatzeko bidea ere izan dadila espero dute udal ordezkariak.

Izan ere, alkatearen esanetan, Mirentxu "estigmatizatuta" dago, gizarte bazterkeria egoeran dauden edo arazo larriak dituzten pertsonentzako zerbitzu gisa; baina hori "errealitatetik oso urrun dago", oinarrizko zerbitzu sozialak era guztietako pertsoneri eta familiei zuzendutako prestazio eta laguntza askotarako sarbidea baitira. Hala adierazi zuen Jesus Zaballosek, departamenduko teknikariak eta Lourdes Acevedo arloko zinegotziak lagunduta egin zuen argitalpenaren aurkezpenean.

Zerbitzu sozialen "leihatila bakarra" da gida. Prestazioaren eskumena udalarena, diputazioaren edo Eusko Jaurlaritzarena izan, Mirentxutik kudea daitezkeen laguntza guztiak leku bakarrean batzen ditu. Balia dezakeen talde edo pertsona aintzat



Zerbitzu sozialen egoitza den Mirentxun aurkeztu dute gida. LASARTE-ORIAKO UDALA

hartuta, hainbat ataletan banatu dute liburuxka: adinekoak, desgaitasuna, emakumeak, haurrak, gizartetik baztertuak, prestazio ekonomikoak eta bestelakoak. Pieza bakoitzak laguntzaren xedearren berri ematen du, eskatzeko bete beharreko baldintzak zehaztuta. Modu errazean azaltzeaz gain, gida denbora luzez erabilgarria izan dadin, informazio ahalik eta iraunkorra ere jaso dute.

9.500 ale argitaratu dituzte, 8.268 euroko kostuarekin, eta

Lasarte-Oriako etxeetan ale bana jasoko dute lasarteoriarrek. Ondorioz, oinarrizko zerbitzu sozialek bertaratzen diren kopurua handituko dela aurreikusten dute arduradunek. Horregatik, eurek kudeatzen ez dituzten bestelako laguntzen inguruko informazioa ere ematen dutela gogorarazi zuen Gemma Ferrer teknikariak aurkezpenean. Hala nola, bonu sozial energetikoa, doako urgazpen juridikoa, etxebizitzetarako laguntzak...



TXINTXARRI

Zahar etxeko langileen protesta

Atsotakar zahar egoitzako langileak beste behin kalera irten dira hitzarmen berria eskatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiari. Hilabeteak daramatzate greban, lan baldintza eta soldata hobekuntzak aldarrikatzeko. Asteartean udaletxe aurrean hainbat erabiltzailek lagunduta egindako protestan Maite Peña gizarte politiken diputatuaren aurkako oihuak eta turuta soina nagusi izan ziren.



LASARTE-ORIAKO UDALA

Bost laguntza kooperaziorako

Lasarte-Oriako Udalak 2018ko kooperaziorako laguntzak banatu ditu. Kuba, Nikaragua, Guatemala, El Salvador eta Mendebaldeko Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan aurrera daramatzaten hainbat proiektu finantzatu dituzte 12.847 euroekin. Hauen xedea ur edangarriaren sistemak hobetzea, gizarte arretarako programak sendotzea edo garraio azpiegiturei laguntzea da.

LK
HERRI URRATS 2019
 SENPERE
 MAIATZAREN 12A

**Etorri gurekin autobusez,
 Lasarte-Oriatik Senperera!**

Eguna **Maiatzak 12**
 Izena emateko azken eguna **maiatzaren 9a**
 Prezioa Bazkideak **10€**
 Gainerakoak **12€**

Irteteko **Tajamarreko biribilgunean 09:00etan**
 Itzultzeko **Senperen 19:00etan**
 Geltoki 4, behea - LASARTE-ORIA
 943 37 14 48 - kultura@ttakun.eus

**DO
 BE
 RA**
 EUSKARA
 ELKARTEA

Ttaku
 Kultur Elkarte

Argi eta ozen

Lasarteoriatarrek euskararen aldeko aldarria egin dute

Korrikak Lasarte-Oriako kaleak alaitu zituen apirilaren 12an. Korrika Txikiak hasi zituen euskararen aldeko ekimenak. Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko, Landaberri ikastolako eta Oriarte Institutuko haur eta gazteek ilusioz hartu zuten lekukoa. Guraso eta ezagunek animoak eman zizkieten txikiei eta gazteei ibilbide osoan zehar. Okendo plazara iritsi eta ikasleek prestatutako dantzak eskaini zituzten. Indarrak berreskuratzeko, Gazte Batzordeak makarroi jana egin zuen. Giro ederrean, 15:30 aldera iritsi zen 21. Korrika Lasarte-Oriara. Hainbat eragilek eraman zuten lekukoa: Ttakun Kultur Elkarteak, Erketz EDTK, Ostadarrek, LABek, Gurasoen Elkarteak, EH Bilduk, udalak, Xumelak, Argia-k, Sorgin Jaiek, Zabaleta Auzolanek, EAGIk... besteak beste. Amaiztean, Okendo plazan izan zen festa, baita afaltzeko aukera ere.



Oriarte Institutuko gazteek erritmoa jarri zioten Korrikari. TXINTXARRI



Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko gazteek Korrika Txikiko lehen zatia egin zuten. TXINTXARRI



Ikastetxeetako txikiak ere kalera atera ziren haien ikaskideak animatzera. TXINTXARRI



Okendo plazan dantza egin ostean makarroi-jana dastatu zuten gazteek. TXINTXARRI



Landaberri ikastetxeko txiki zein gaztetxoek ere eraman zuten lekukoa herriko hainbat kaletan. TXINTXARRI



Ttakunen lekukoa Udako Txokoetako langileek eraman zuten. Haien lana aitortu du horrela elkarteak. TXINTXARRI



Umore ona nagusi izan zen ibilbide osoan. TXINTXARRI



Herriko musika taldeek kaleak alaitu eta korrikalarietako haien doinuak eskaini zizkieten. TXINTXARRI



Herritar ugari bildu zen Hipodromoko zubian 21. Korrikaren zain. TXINTXARRI

Zozketa! Ttakuneko bazkideen artean **Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en 'Musua'** ikuskizunerako bi sarrera bikoitz zozkatuko ditugu!

(maiatzaren 11n Manuel Lekuona kultur etxean egingo duten ikuskizunerako)

Zozketan parte-hartzeko, MAIATZAREN 8ra arte izena eman dezakezu: Ttakunen sare sozialetan, bulegoan, harpidetza@ttakun.eus edo 646 82 44 66 whatsapp-ean.



Bazkideza informazioa





@TtakunKE

EAGI GIPIZKOAKO ERAIKUNTZA ESKOLA
FP CONSTRUCCIÓN GIPUZKOA

Goi maila eta erdi mailako zikloak
ERAIKUNTZA

+INFO www.eagi.eus
943 569 222



Klika

EAGI ERAIKUNTZA ESKOLA euskararekin bat!



Muntteri AEK-ko ikasleek erdigunean eraman zuten lekukoa. TXINTXARRI



Ostadar SKTko futbol eta saskibaloiko neskek ere ederki egin zuten korrika. TXINTXARRI



Korrika, bizikletan eta patin elektrikoan ere egin zuten Lasarte-Oriako ibilbidea. TXINTXARRI



Argia eta Antzako kideak. Aldizkariaren mendeurena ospatu zuten kazetariek. TXINTXARRI



Alkateak eta udal zinegotziek ere babesa eman zioten Korrikari. TXINTXARRI



Guraso elkarteek eta ikastetxeek jende ugari bildu zuten, ehunka pertsonak egin zuten korrika Kale Nagusian barrena. TXINTXARRI



Elkarte gastronomikoetako kideekin batera herritar ugari atera zen Lasarte-Oriatik. TXINTXARRI



Ttiriki Ttarrakako kideek erromeria eskaini zuten Okendo plazan bildu ziren haurren eta gurasoen gozamenerako. TXINTXARRI



Xumela Koruko kideek kantujiira egin zuten Korrikako lekukoa eramane eta gero. TXINTXARRI



Ramonik eta Loitzunek Korrika egin ostean, umorez bete zuten gaua. TXINTXARRI



Elkarte gastronomikoeek antolatutako pintxo afari ederra dastatu zuten. TXINTXARRI

Azkorteko Erronomia

2019ko maiatzak 5

Indarrak berreskuratzeko salda, txorizoa, odolkia eta edaria tabernan!



11:00: Meza Azkorteko ermitan
Alboka Abesbatzaren parte hartzearekin
12:00etatik aurrera: Herri-kirolak

Ttiriki-Ttarraka taldeak girotutako erromeria



Aurten ere autobus zerbitzua doan

*Goizeko 9:00etatik aurrera, erretiratuen elkartetik (Kale Nagusia 40) ermitara.

**Ezin izango da kotxez ermitara igo, bidea itxita egongo da.

ANTOLATZAILEA:



BABESLEA:



LAGUNTZAILEA:





Herritar ugari bildu zen Antonio Mercero plazan. Txirrindulariei azken metroetan animoak eta ongi etorri beroa eskaini zizkieten. TXINTXARRI



Eguraldi ona egin arren, lokatza aurkitu zuten txirrindulariek. TXINTXARRI



Lasterketa amaitzean, denbora begiratu eta indarrak berritu zituzten. TXINTXARRI

Hiru proba, bi gurpil, pasio bat

Bostehun txirrindularik baino gehiagok parte hartu dute Lasarte-Oriako BTT proban. Antonio Mercero gunetik irten, Andatzen barrena lokatz artean ibili, eta Okendon helmugaratu dira. Gogortasunaren arabera hiru distantzia prestatu dituzte



Adin guztietako parte hartzaileak izan ziren BTT lasterketan. TXINTXARRI

Iñigo Gonzalez Sarobe

Bi gurpil eta pasio bat: mendiko txirrindularitza. Lasarte-Oriako BTT lasterketan 510 txirrindularik parte hartu dute aurten; inoizko parte-hartze datu onena da. Antonio Mercero gunetik abiatu dira. Jende dezente hurbildu da irteera ikusi eta kirolariak animatzera. Andatzen barrena ibili dira gero. Hiru ibilbide izan dituzte aukeran: motza, 29 kilometro eta 1.080 metroko desnibelarekin; altua, 38 kilometro eta 1.400 metroko desnibelarekin;

eta pro delakoa, 48 kilometro eta 1.700 metroko desnibelarekin. Izan da berrikuntzarik aurtengo edizioan: lau kilometroko kronoeskalada egin dute txirrindulariek Andatzen, 12. eta 16. kilometroen artean.

Makina bat herritar zeuzkaten zain txirrindulariek Okendo plaza atzealdeko helmugan. Nekatu arte egin dute txalo, eta aspertu arte animatu. Asier Odriozola kazetariak egin ditu aurkezle lanak aurten. Azken egunetan euri askorik egin ez duenez, bidea

ez zegoen beste urte batzuetan bezain lokaztua. Marroi kolorea nabarmena zen arropa, kasko eta bizikletetan, hala ere. Helmuga alboko taberna inprobisatuan berritu dituzte indarrak parte hartzaileek. Eguerdiko hamabi terdiak aldera gertatu da goizeko anekdota bitxiena: txirrindulari batek ezkontzeko proposamena egin dio bikotekideari, proba amaitutakoan. BMW Lurauto BTT Lasarte-Oria proba kirola baino askoz gehiago da, bistan denez.



Bakarka, bikoteka edo taldeka iritsi ziren txirrindulariak helmugara. TXINTXARRI



450 bat gizon eta emakume iritsi ziren helmugara. Baina 500 bat ibili ziren txirringa gainean BTTko hiru probak egiten. TXINTXARRI



GREMIOEN GIDA 2019

Arreta profesionalena, zugandik gertu



Barne-Diseinua



Iturgintza



Igeltseritza



Elektrizitatea

SUGATE
SUKALDEAK ETA BARNE-ERREFORMAK

Pintore kalea 5, Lasarte-Oria
Tel: 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com
www.sugate.net

- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ORDENADORE BIDEZKO DISEINUA
- AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE
- HORMA-ARMAIRUAK
- ETXETRESNA ELEKTRIKO MARKA GUZTIAK

ILLARRETA
ITURGIINTZA
IGELTSEKITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSEKITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA: Geltoki kalea 14, Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52.
TAILERRA: Oialume bidea 24, Astigaraga
info@illarreta.com

ANTONIO ARREGUI, S.L. eraikuntza materialak
GAMMA

- Eraikuntza materialak orokorrean
- Zeramika
- Sanitarioak
- Komuneko konplementuak

www.gamma.es

BILTEGI OROKORRA Oria Etorbidea, 6
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 64 73
aarreguisl@ya.com

ERAKUSKETA Goikale, 2
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 36 59 47
Faxa: 943 36 59 47

ELECTRICIDAD ARREGUI

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39, LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21
600 857 586 - www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com (on-line denda)



Kristaldegi eta leihoak

ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

- Komertzial instalazioak
- Beira bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutxa-itxiturak eta irristailuak
- Ispiluak
- Barandak
- Kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA
943 37 17 33 • 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com

ISU
27. urteurrena

Mota guztietako leiho, pertsiana, manpara, toldo eta dekorazioko profesionalak zure zerbitzura

ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA, ALUMINIOA, PVC ETA POLIURETANOA

Kale Nagusia, 46 behea • Lasarte-Oria
Tel. 943 36 64 95 • Faxa: 943 36 52 22
ventanas_isu@hotmail.com
Pol. Ugaldea, 21 • 6 lokala, Usurbil

DEL ORIA KRISTALDEGIA

- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatuetak
- Merkataritza instalazioak
- Dutxa itxidurak
- Kristalgintza orokorra

Uistin Kalea 11 (Zubieta Plaza) Lasarte-Oria
Tlf.: 943 36 23 52 607234522
www.cristaleriadelloria.com

Hurrengo GREMIOEN GIDA maiatzaren 31n

Bertan parte hartzeko:
943 37 14 48 (106)
646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus


Alex Saleta, Europako azpitxapeldun Errusian

Herritar gazteak 18 urtez azpiko Europako txapelketa jokatu du Kaliningradon (Errusia). Ederki jokatu ere: bigarren izan da Espainia, finalean Georgiaren aurka 20-10 galdu ostean. Lasarteoriatarrak Beltzak ZRT taldean jokatzeko du gaur egun

Txintxarri

Europako txapelketa bikaina jokatu du Alex Saleta 17 urteko lasarteoriatarrak. Kaliningradon (Errusia) aritu da, Miguel Angel Puerta entrenatzaileak zuzendutako selekzioarekin lehian. Azpitxapeldun izan da Espainia, final handian Georgiaren aurka 20-10 galdu eta gero. Urrea kolokatzetik oso gertu egon ziren, baina bigarren zatian egindako bi akatsekin aukera guztiak galdu zituzten. Portugal geratu da sailkapenean hirugarren. Saletak Beltzak ZRT taldean jokatzeko du gaur egun, harrobian. Datorren denboraldian seniorretara egingo du jauzi seguruenik.

Herbehereen aurka jokatu zituzten final laurdenak. Saletak ez zuen jokatu orduko horretan, txapelketa min hartuta iritsi zelako. Hurrengo fasean Portugalekin neurtu zituen indarrak Espainiak. Aurreko neurketa baino orekatuagoa izan zen, eta bukaerara arte ez



Alex Saleta, domina kolkoan eta Beltzaken bandera eskuetan. BELTZAK

zen jakin nor arituko zen Georgiaren aurka finalean.

Errugbi jokalarik gazteak azaldu du Georgiaren aurkako neurketa "oso orekatua" izan zela, eta bietako edonork irabaz zezakeela. Espainiak bi akats larri egin zituen bigarren zatian, eta horiek

baliatu zituzten georgiarrek urrea kolokatzeko. Azkenean, 20-10.

Harrobiko talde guztietan aritu ondoren, datorren urtean seniorretara egin nahi du jauzi herritarrek, hau da, Babyauto Zarautz taldera.

Domina ugari Euskadiko atletismo egokituko txapelketan

Ostadar Inklusioko sei atletek Euskadiko atletismo egokituko txapelketa jokatu zuten aurreko asteburuan, eta emaitza ikusgarriak lortuta itzuli dira etxera.

Gorka Uzkudun pisu jaurtiketean, Ane Asensio 100 eta 200 metro lasterketan eta Xuban Santin 100 metro txapelkunak izan dira. Ezequiel Hernandezek 3. postua lortu du 200 metroan. Diana Benedicto, berriz, bigarren

izan da 400 metroan. Jon Mendoza ere fin aritu da, nahiz eta lehen aldiz parte hartu txapelketan.



Lasterketaren une bat. OSTADAR



TXINTXARRI

Nafarroako Pirinioetan

Lasarte-Oriako ordezkari zabalak aritu zen joan den larunbatean Zubirin, Nafarroan. 33 kilometroko lasterketa osatu zuten: Nafarroa Extrem. Herritar gehienak Lasarte-Oria Trail elkarte kideak ziren (irudian). Beñat Los Arcosek egin du denbora onena. Ezbehar bakarria Ibon Agirrek sufritu du; txorkatiltan min hartuta lasterketa utzi behar izan du.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

ERREGIONALEN GORENGOA

Billabona KE - Ostadar SKT

Igandea. 16:30. Arratzain, Billabonan.

ERREGIONAL 1. MAILA, KOPA

Irauli Bosteko KK - Ostadar SKT

Larunbata. 19:30. Herrera, Donostian.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Euskalduna SD - Ostadar SKT

Ostirala. 18:00. Ubitarte, Andoainean.

JUBENILEN 1. MAILA, IGOERA

Anaitasuna CD - Ostadar SKT

Igandea. 16:30. San Juan, Azkoitian.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Euskalduna SD

Larunbata. 10:00. Michelin Kirol

gunean.

KADETEEN 1. MAILA, KOPA

Ostadar SKT A - Intxurre KKE

Larunbata. 16:00. Michelin Kirol

gunean.

Usurbil FT - Ostadar SKT B

Larunbata. 12:30. Harane, Usurbilen.

INFANTIL OHOREZKO MAILA, TXAPELDUNEN FASEA

Antiguoko KE - Ostadar SKT

Larunbata. 11:00. Berio, Donostian.

INFANTILEN 1. MAILA, KOPA

Ostadar SKT A - Tolosa CF B

Larunbata. 12:00. Michelinen.

Tolosa CF A - Ostadar SKT B

Larunbata. 09:00. Usabal, Tolosan.

Texas Lasartearra - Euskalduna

Igandea. 11:00. Michelin Kirol gunean.

INFANTILEN F-8, KOPA

Orioko FT - Ostadar SKT

Larunbata. 12:00. Mendibeltz, Orion.

ARETO FUTBOLA

HERRIKO TXAPELKETA

Trumoi taberna - Asador Irigoien

Larunbata. 09:15. Michelin Kirol gunean.

Patricio Cocktail Bar - Izen gabe

Larunbata. 10:15. Michelin Kirol gunean.

Insausti taberna - Bar Buenetxea

Larunbata. 11:15. Michelin Kirol gunean.

Viña del Mar - Avenida taberna

Larunbata. 12:15. Michelin Kirol gunean.

GIPUZKOAKO I. MAILA

Lauburu Berazubi - Aldaz Klinika

Ostirala. 20:00. Belabieta kir., Ibarra.

GIPUZKOAKO II. MAILA

ISU Leihoak - Antiguoko KE B

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kir.

JUBENILAK

Getaria Keta - Bar Lasarte

Larunbata. 11:20. Getarian.

SENIORRAK

Garoa Taberna - Teep Samaniego

Larunbata. 18:00. Durangon.

GIPUZKOAKO KADETEAK

Arizmendi - Balerdi Harategiak

Larunbata. 12:30. Eskoriatzan.

SASKIBALOIA

SENIOR LEHENENGO MAILA

Ostadar SKT - Añorga saskibaloia

Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kir.

SENIOR HIRUGARREN MAILA

Ostadar SKT - BKL Senior

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kir.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Mondragon Unibertsitatea - Ostadar SKT

Larunbata. 10:00. Musakola, Arrasaten.

KADETE PARTE HARTZEA

Ostadar SKT A - Zast Zarautz ZKE

Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kir.

ERRUGBIA

SENIORRA EUSKAL LIGA

Zarautz Beltzak RT - AZ Avia

Larunbata. 18:00. Durangon.

IGERIKETA

KZL LIGA

Buruntzaldea IKTKo benjaminak

Larunbata. 15:30. Udak kiroldegia, Hernanin.

LASTERKETA

URUMEAKO 5 MILIAK

Hainbat herritarrek parte hartuko dute Urumea ibai ertzetik egingo duten 7,65 kilometroko proban.

Igandea. 10:00. Santa Katalinako zubi, Donostian.

ZARAUZKO HERRI LASTERKETA

Hainbat herritarrek parte hartuko dute 8,2 kilometroko proban.

Igandea. 11:00. Zarautzen.

PILOTA

GIPUZKOAKO LAU T'ERDI

TXAPELKETA

Saralegi - Artetxe

Larunbata. 10:00. Beotibar, Tolosan.

ALEBINAK

Intza - Hernani

Larunbata. 16:00. Michelin Kirol gunean.

INFANTILAK

Intza - Hernani

Ostirala. 20:00. Michelin Kirol gunean.

ZORION AGURRAK



Maialen
Zorionak Maialen! Ondo pasa zure urtebetetzean, hamalau urterekin oso polita zaude. Milioi bat besarkada Leire, aitona eta familiaren partetik.



Ander
Zorionak artista!!!



Elene
Zorionak Elene! Egun polita pasa dezazula, beti bezain zoragarri eta alai. Maite zaitugu!!!



Joxe Mari
Eskerrik asko gure bizitza koloreztatzeagatik. Zorionak!

JAIOTAKOAK

Valentina Pinto Perez. Apirilaren 25ean.
Alaia Olaiz Vicente. Apirilaren 22an.
Enara Ucero Martin. Apirilaren 13an.
Martin Yaben Izquierdo. Apirilaren 11n.

HILDAKOAK

Jesus Martinez Gonzalez. Maiatzaren 2an.
Antonio Ruiz Garcia. Apirilaren 30ean.
Amelia Gomez Martin. Apirilaren 27an.
Marciana Estebanez Calvo. Apirilaren 16an.
Carmen Sanchez Yubero. Apirilaren 11n.
Jose Andres Castrillo Garcia. Apirilaren 11n.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 3 GANDARIAS-URIBE
Larunbata, 4 GIL
Igandea, 5 GIL
Astelehena, 6 URBISTONDO
Asteartea, 7 ACHA-ORBEA
Asteazkena, 8 GIL
Osteguna, 9 GANDARIAS-URIBE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORIE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cfgipuzkoa.com).

OHARRAK

Zubietako Haur Txokoak

Zubietako Guraso Elkarteak uztailan (1etik 30era) zehar haur txokoak antolatuko ditu Zubietan, 2 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduak.


Txokoetan parte hartzeko maiatzaren 5a arte aurretiko izen emate epea zabalik dago. Interesatuak zubietatxoko@gmail.com helbidera idatz dezakete edota 649 659 786 telefonora deitu.

Bidaia Britainia eta Normandiara


Urtero bezala, Lasarte-Oriako talde batek bidaia antolatu du Britainia eta Normandiara, uztailak 16tik 26ra. Interesatuak 661 417 853 telefonora deitu behar dute.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 03




Larunbata, 04




Igandea, 05




Astelehena, 06




Asteartea, 07



Asteazkena, 08



Osteguna, 09



GUTUNAK

Lasarte-Oriako Udaltzaingoa gainbeheran!

LAB SINDIKATUA

Lasarte-Oriako Udaleko LAB sindikatuak Udaltzaingoko Zerbitzuak duen egoera tamalgarria salatu nahi du. Lasarte-Oriako Udaltzaingoa gainbeheran dago, ez du erantzuteko gaitasunik, eta baldintza tamalgarrietan ari da lanean; giza baliabiderik gabe eta baliabide materialik gabe.

Txandak osatzen sarritan bi edota agente bakarra izaten dira. Giza baliabideen gabezia betetzeko, zerbitzuak gainontzeko udaltzainen aparteko ordukin betetzen dira. Gainontzekoen segurtasuna bermatzeko lan egiten dutenek ezin dezakete euren segurtasun propioa bermatu.

LAB sindikatuak udal-gobernuari udaltzaingoa egoera serio har dezala exijitzen dio, udaltzaingoiari behar beste bitarteko pertsonalak emanez.

Bestalde, salatu nahi dugu, 2018ko irailaren 11n Udaltzarrak gertutasuna, enpatia eta parte-hartzea oinarri izango zituen auzoko udaltzain-eredua helburutzat hartuta "Udaltzaingoa eredu gertukoa eta parte-hartzailea" izeneko mozioa onetsi zuen arren, udal-gobernuak kontrako bidea hartu duela, udaltzainen lanpostuak Arkauteren bidez hornitzeko deialdi bateratuan parte hartuz.

Lehenik, Lasarte-Oriako udal-gobernuak duen arduragabekeria salatzen dugu, LEParen eta enplegu publikoaren inguruan dituen eskumenei muzin egiteagatik, eta gainera Udaltzaingoa dagoen behin-behinekotasun handiaren arduradun izanda.

Udaltzaingoa deialdi bateratuan parte hartuz, gardena ez den eta baztertzalea den organo batera eramaten dute oinarrien, metodologiaren eta prozesuaren afera guztia. Eredu horren bitartez, udalen berezitasunekin eta autonomiarekin zerikusirik ez duten erakundeek definituriko prozesu hautatzaileak garatzen dira, udalen eskumenak mespretxatuz eta udaletako ordezkari sindikalei udalen lan-eskaintza publikoetan profilak, betekizunak eta prozedurak negoziatzeko aukera ukatuz.

Prozesu honek ez dio Lasarte-Oriako Udalarari onurarik ekarriko; izan ere, oinarrien zirriborroan, zeina ez baita langileen ordezkariaren negoziatua izan, ez dira kontuan hartzen udalerraren ezagutza, udal-arauak... Horregatik ez du inongo interesik eskaintzen udaletako udaltzaingoa funtzionamendu onerako eta garapenerako, ezta udaltzain-gaien integrazioerako ere. Azken batean, prozesu honetan ez da bultzatzen herritarrenganako hurbiltasuna helburu duen eredu, kontrakoa baizik.

Badirudi Lasarte-Oriako udal-gobernuaren interes bakarra bere ardurari ihes egitea eta ahalik eta lan gutxien egitea dela, bere eskumenei utzikierian murgilduz. Ahaztu gabe Udaltzaingoa gaur egun jarduten duten funtzionario interinoekiko udal-gobernuak duen begirune eskasa; zer esanik ez zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzearekiko.

Horregatik guztiagatik exijitzen diogu Lasarte-Oriako Udalarari bere enplegu publikoko eskaintzak eta lan-poltsak martxan jar ditzala zuzeneko kudeaketaren bitartez eta langileen ordezkariarekin lehentasunak, prozesuak, profilak eta abar negoziatuz.

KOMIKIA



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Garajeko marra bat alokatzen dut, hilabetean 60 eurotan, Pablo Mutiozabal 2. zenbakian. Telefonoa: 688 655 218.

LANA

ESKARIA

Zerbitzaria behar da Lasarte-Oriako taberna

baterako. Interesatuak deitu: 607110365.

ESKAINZA

Pertsona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Orduka, jaiegunetan, zein asteburuetan. Ospitalean gauak ere egiteko prest. 606 661 048.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak

zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna edo externa bezala. 663 488 438.

SALEROSKETA

SALDU

Ohe artikulatua salgai, motorrarekin, biskoe-lastikako kotoxia eta guzti, salgai. 190x90. Erabili gabea, berri-berria. 700

euro. Harremanetarako: 610 953 258.

Piaggio 50 ZIP 2T motorra salgai. Oso egoera onean eta prezio merkean. 500 euro. Harremanetarako: 610 953 258.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € + BEZ publizitatea@ttakun.eus 646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagire, Iñigo Gonzalez, Maitane Aldanondo eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzailak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde, Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia, Naiara Goikoetxea.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGUISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Azkorteko erromeria. Urtero bezala, Lasarte-Oriako baserritarrak eta herritarrak Azkorteko Santa Krutz ermita inguruan bilduko dira. Musika eta herri kirolak izango dira guztien gozamenerako. Jatekorik ere izango da indarrak berreskuratzeko. Igo nahi duten guztiek oinez edo autobusez egin dezakete ermitarako bidea, ez da kotxerik igotzen utziko. Autobus zerbitzua goizeko 9:00etan hasiko da eta Zumaburuko autobus geltokitik aterako da. Ttakun Kultur Elkarteak antolatzen duen ekimena da. Azkorteko ermita, igandea, goiza osoa.

Azkorteko Erromeriko egitaraua:
11:00etan, meza Alboka abesbatzaren parte hartzearekin
12:00etan, herri kirolak:
 Izeta III ta Koloma harrijasotzaileak.
 Ugaitz Mugertza eta Jesus Mari Mujika aizkolariak.
 Ttiriki-Ttarraka taldeak girotuko du erromeria.

OSTIRALA 3

LASARTE-ORIA Dantza

Logela eta Circle of Trustek elkarlanean sortutako *Nagare* ikuskizunaz gozatu ahalko da. Dantza eta ikus-entzunezko teknologiak fusionatzen ditu. Sarrera, 5,50 euro. Manuel Lekuona kultur etxea, 21:00etan.

LARUNBATA 4

IDIAZABAL Bertsolaritza

Unai Muñoak Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean parte hartuko du. Sarrerak Bertsozale Elkarteko kideek eta 6-16 urte arteko gazteek, 5 euro; gainerakoek, berriz, 7 euro. 16:00etan jarriko dira salgai. Idiazabalgo Guraso elkarteak, 17:00etan.

IGANDEA 5

ORIO Bertsolaritza

Andoni Otamendik Gipuzkoa Bertsotan sailkapen fasean parte hartuko du. Sarrerak Bertsozale Elkarteko kideek eta 6-16 urte arteko gazteek, 5 euro; gainerakoek, berriz, 7 euro. 16:00etan jarriko dira salgai. Orioko kultur etxea, 17:00etan.

ASTELEHENA 6

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Balioetan Hezi XVI. jardunaldiari hasiera emango zaie. Aurten *Maitatzeko, entzuteko, pentsatzeko trebezia* izenburua du. Lehen saioan Felix Garitano Ama Brigitaren komentuko kapilauak *Maitatzeko trebezia* hitzaldia eskainiko du. Danok Kide elkarteak antolatutako ekintza da.

Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan.

ASTEARTEA 7

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Balioetan Hezi jardunaldietako bigarren hitzaldian, Eugenio Ibarzabal idazlea entzuteko trebeziari buruz mintzoko da. Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Mikel Jauregi *Gara*-ko kazetariak egunkariaren aurkako expolioa lehen eskutik ezagutzera emango du *#ExpolioGara* hitzaldian. Antonio Mercero gunea, 19:00etan.

ASTEAZKENA 8

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Maitatzeko, entzuteko, pentsatzeko

trebezia jardunaldiari amaiera emateko, Jexux Mari Mujika Filosofia irakasle ohiak *Pentsatzeko trebezia* hitzaldia eskainiko du. Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Tailerra

Wikimedia tailerraren bigarren saioa egingo dute. Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 9

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Segurtasuna pausoz pauso hitzaldi-tailerra eskainiko dute Eusko Jaurilaritzako seguratasun saileko kideek. Biyak Bat elkarteak kideei zuzendutako ekintza da eta oroi garri bat emango zaie hurbiltzen direnei. Biyak Bat elkarteak, 18:00etatik 19:30era.

LASARTE-ORIA Emanaldi digitala

Bartzelonako Gran Teatre del Liceu antzokian 2007. urtean grabatutako *Manon* operaz gozatu ahalko da. Jatorrizko hizkuntzan eskainiko da gaztelaniazko azpidatizkiekin. Sarrera aurretik erosita, 7,5 euro; egunean, 9 euro.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Cómo entrenar a tu dragón 3
 Igandea: 17:00.

Mula
 Igandea: 19:30.

HERNAIN

BITERI

Mula
 Ostirala: 22:30.
 Larunbata: 22:30.
 Igandea: 19:30
 Astelehena: 16:30.

ANDOAIN

BASTERO

La Ilorona
 Larunbata: 19:30, 22:00.
 Igandea: 19:30.
 Astelehena: 19:30, 22:00.

USURBIL

URBIL

Vengadores: Endgame

Ostirala: 16:20, 17:00, 18:00, 18:30, 19:00, 19:20, 20:00, 20:40, 21:40, 22:10, 22:40, 23:00 (3D), 23:40.
 Larunbata: 16:20, 17:00, 18:00, 18:30, 19:00, 19:20, 20:00, 20:40, 21:40, 22:10, 22:40, 23:00 (3D), 23:40.
 Igandea: 16:20, 17:00, 18:00, 18:30, 19:00, 19:20, 20:00, 20:40, 21:40, 22:10, 22:40.

La pequeña Suiza

Ostirala: 15:55, 22:45, 00:40.
 Larunbata: 15:55, 22:45, 00:40.
 Igandea: 15:55, 22:45, 22:55.

Lo dejo cuando quiera

Ostirala: 16:45, 20:05, 22:20, 00:35.
 Larunbata: 16:45, 20:05, 22:20.
 Igandea: 16:45, 20:05, 22:20.

Mia y el león blanco

Ostirala: 15:50, 20:30.
 Larunbata: 15:50, 20:30.
 Igandea: 15:50, 20:30.

UglyDolls:

extraordinariamente feos

Ostirala: 16:00, 18:05.
 Larunbata: 16:00, 18:05.
 Igandea: 16:00, 18:05.

¡Shazam!

Ostirala: 15:45, 00:15.
 Larunbata: 15:45, 00:15.
 Igandea: 15:45.

Cementerio de animales

Ostirala: 01:00.
 Larunbata: 01:00.
 Larunbata: 22:35

Dumbo

Ostirala: 16:35, 17:55.
 Larunbata: 16:35, 17:55.
 Igandea: 16:35, 17:55.



LABURPENA

Mula

Zuzendaria: Clint Eastwood. **Gidoilaria:** Nick Schenk. **Herr.:** AEB (2018). **Antzezleak:** Clint Eastwood, Bradley Cooper, Dianne Wiest, Michael Peña, Taissa Farmiga, Laurence Fishburne, Ignacio Serricchio, Alison Eastwood, Andy Garcia, Diego Cataño, Robert LaSardo, Lobo Sebastian, Clifton Collins Jr., Manny Montana, Jill Flint. **Iraupena:** 116 minutu.

Susmorik pizten ez duen pertsona

Clint Eastwood *Mula* filmeko zuzendari eta protagonista da. Eastwoodek aktore bezala egiten duen azken filma izan daiteke hau.

Benetako gertaera batean oinarritzen da filma. Leo Sharp *Tata II*. Mundu Gerrako veterano, lorezain eta narkotrafikatzaileen gidariaren bizitza ardatz hartuta, Earl Stonen istorioa kontatzen du. Nick Schenk gidoilariak gainera arrazakerien eta inmigrazioaren arazoa ere nabarmentzen ditu filmean.

Stonek bere lorezaintza negozioa itxi behar du teknologia berrietan presentzia duten

enpresen indarra dela eta. Arazo ekonomikoek behartuta, Sinaloako narkotrafikatzaile taldearen droga garraiolari lana egitea onartzen du. Arrakasta handia du eta pixkanaka droga kopuru handiagoak garraiatzen ditu. Izan ere, ia 90 urteko pertsona batek ez du susmorik pizten. DEAk gidari ezezaguna harrapatu nahi du, baina ez da lan erraza izango.

Stonek gidari lanetan lortutako diruarekin, arazo ekonomikoak konpontuko ditu. Era berean, lorezaintzaren erruz baztertuta zuen familiari arreta ematen saiatuko da.



Batxilergoko
matrikula epea:
maiatzaren
2tik 14ra

ORAINARI BEGIRA, GEROA AMESTEN

3 ibilbide:

- **Giza Zientziak**
- **Zientziak**
- **Gizarte Zientziak**

Informazio gehiagorako hitzordua eskatu:

secretaria@donostia.teresiarekola.com

www.donostia.teresiarekola.com

Manuel Lardizabal, 25 IBAETA-Donostia

Tel: 943 211 764



**ERAIKUNTZAN
LAN ASKO DAGO!!**
Enkargatuak, Margolariak,
Igeltseroak, Pladuristak...



ATE IREKIAK

Maiatzak 8, asteazkena
15:00-19:00

Maiatzak 11, larunbata
10:00-13:00



GIPUZKOAKO
ERAIKUNTZA ESKOLA
FP CONSTRUCCIÓN
GIPUZKOA

**Goi maila eta erdi mailako zikloak
ERAIKUNTZA**

+INFO www.eagi.eus
943 569 222

Ezin baduzu bertaratu,
deitu eta hartu hitzordua!



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

**ATE IREKIEN
JARDUNALDIAK**




www.lhusurbil.eus

MAIATZA:

Larunbata 11 eta 18 | 11:00etan

Asteazkena 15 | 18:00etan



zatoz gu ezagutzera!!